


ELHUYAR
**sinonimoen
kutxa**
sinonimo eta antonimoen hiztegia



ELHUYAR
editzioak

ELHUYAR
sinonimoen
kutxa
sinonimo eta antonimoen hiztegia

3. edizioa



ELHUYAR
edizioak

Elhuyar Hizkuntza Zerbitzuek ekoitzia

Argitalpen honen arduraduna **Elixabete Etxeberria**

Erredakzioa **Elixabete Etxeberria, Sahats Ugartetxea**

Tratamendu informatikoa **Pili Lizaso, Edurne Martinez,
Mari Susperregi**

Maketa **Mari Karmen Urdangarin**

Azala **PUBLIS NCM**

Argitalpen honen jatorria Jon Urrujulegiren
Sinonimoen Kutxa hiztegia da

1. edizioa: 1999ko urria
2. edizioa: 2004ko abendua
3. edizioa: 2010eko uztaila

Ikasmaterial honek Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren
hizkuntza-onespena jaso du: 2010-05-26

© **Elhuyar Fundazioa**

Zelai Haundi, 3. Osinalde industrialdea. 20170 USURBIL (Gip.) (2010)

Lege-gordailua: SS-970/2010

ISBN: 978-84-92457-12-0

Inprimatzailea: Leitzaran Grafikak. Martin Ugalde Kultur Parkea. 20140 Andoain (Gip.)

Sarrera

Urte askotxo igaro dira Jon Urrujulegik 1999an *Sinonimoen Kutxa* argitaratu zuenetik Elhuyarren eskutik. Urte oparoa izan zuen hura euskarak sinonimoen arloan, garai bertsuan beste bi sinonimo-hiztegi argitaratu baitziren, UZEIren eskutik bata eta “Bostak Bat” lantaldearen eskutik bestea.

Ordutik hona, euskarak hainbat urrats egin ditu normalizazio-bidean; besteak beste, Euskaltzaindiaren *Hiztegi Batua* 2000 urtean, geroztik Euskaltzaindia etengabe osatzen eta Interneten argitaratzen ari dena; Orotariko *Euskal Hiztegi* osoa 2005ean argitaratu zena eta, etxera begira jarrita, *Elhuyar Hiztegiaren* hirugarren edizioa 2006. urtean kaleratu zen eta *Elhuyar Zientzia eta Teknologiaren Hiztegi Entziklopedikoa* 2009an.

Gainera, teknologia berriei esker, ordutik hona eratu diren zenbait corpus linguistiko/estatistiko kontsultatuz osatu da hiztegia. Horrela, hitz eta adiera berriak jasoz hiztegi eguneratu eta erabilgarri bat erabiltzaileei eskaintzea izan da hiztegitileen asmoa.

Beraz, orduko hartan oinarrituta, *Hiztegi Batuaren* grafia eta gomendioen arabera moldatuta eta, corpusetan oinarrituz, hitzen egunerokotasunari begira atondu du Elhuyarrek *Sinonimoen Kutxaren* hirugarren edizioa.

Hiztegi Batuaz gain, batez ere iturri hauek erabili dira liburua prestatzeko: UZEIren *Sinonimoen Hiztegia*, “Bostak Bat” lantaldearen *Sinonimoen eta Antonimoen Hiztegia*, Orotariko *Euskal Hiztegia*, *Euskalterm Terminologia Banku Publikoa*, I. Sarasolaren *Euskal Hiztegia* eta *Zehazki Hiztegia*, Vox etxearen *Diccionario Esencial de Sinónimos y Antónimos*, Everest etxearen *Diccionario Práctico de Sinónimos y Antónimos* eta Oxford etxearen *Dictionary of Synonyms and Antonyms*. Corpusei dagokienez, batez ere XX. mendeko euskararen corpus estatistikoa (<http://www.euskaracorpora.net/XXmendea/index.html>) eta Ereduzko prosa gaur corpora (<http://www.ehu.es/euska>

[ra-orria/euskara/ereduzkoa/](#)) izan dira kontsulta-iturri. Horiez gain, Elhuyar Fundazioak EHUko Informatika Fakultateko IXA taldearen laguntzaz garatutako CorpEus aplikazioa ere (<http://corpeus.elhuyar.org/cgi-bin/kontsulta.py>) erabili dugu, Internet euskarazko corpus gisa kontsultatzeko.

Bestalde, hizkuntzalaritzako adituek bete-beteko sinonimorik badenik ia ezinezkotzat jotzen badute ere, esanahi bereko edo bertsuko formak biltzea izan da lan honen helburuetako bat. Iparraldean eta Hegoaldean, hainbat euskalkitan erabiltzen diren formak, onespren-maila eta hizkuntza-maila desberdinekoak, elkarren ondoan aurkituko ditu sarritan erabiltzaileak. Esanahi bereko edo bertsuko formez gain, hainbatetan antonimoak ere aurkitu ahal izango ditu erabiltzaileak.

Hiztegi honek 20.000 hiztegi-unitatetik gora ditu, sarrera eta azpisarreratan banatuak. Batez ere sinonimodun edo/eta antonimodun oinarrizko lexikoa jasotzea izan da lan honen helburua. 24.537 adiera eta 63.810 sinonimo eta 22.983 antonimo ditu.

Sinonimoen eta antonimoen hiztegia izanik, lexiko arrunteko forma guztiak ez dute sarrerarik, sinonimodunek edo/eta antonimodunek soilik baizik. Ondorioz, gerta liteke forma baten adiera arruntenak hiztegi honetan lekurik ez izatea, hain zuzen ere adiera horretako sinonimorik edo/eta antonimorik ez duelako euskarak.

Hiztegiaren helburuetako bat erabiltzailearen lexikoa aberastea da, eta, hori kontuan izanik, sarrera eta sinonimo/antonimo asko eta asko oharrez horniturik datoz, erabiltzaileak unean-unean bere beharren arabera aukera egokiena egin dezan.

Kontuan izan behar dugu, beraz, sinonimo-hiztegi bat material osagarria dela, lexikoa aberasten eta hizkuntzaren ezagutza sakontzen lagunduko digun materiala.


Honaino hiztegi-gilearen egitekoa; orain, erabiltzaile, zuri dagokizu esku artean duzun hitz-zerrenda erabiltzea eta bertan aurkitzen dituzun hutsu-neak hiztegi-gileari jakinaraztea, ohar horiek hurrengo edizio baterako material preziatua izango baitira harentzat.

Laburdurak

adb.	adberbioa
adj.	adjektiboa
arrt.	hitz edo erabilera arrunta (gizabidearen arauak gaitzesten dutena)
B	bizkaiera
banatz.	banatzailea
BN	behe-nafarrera
da ad.	da aditza
da/du ad.	da/du aditza
det.	determinatzailea
dio ad.	dio aditza
du ad.	du aditza
E	erronkaria
erak.	erakuslea
etab.	eta abar
G	gipuzkera
g. er.	gutxi erabiltzen den hitz edo adiera
g. g. er.	gaur gutxi erabiltzen den hitz edo adiera
gald.	galdetzailea
GN	goi-nafarrera
haur.	haur-hizkerazko hitz edo adiera
hed.	hedaturazko adiera
Heg.	Hego Euskal Herriko hitz edo adiera
herr.	herri-mailako hitz edo adiera
interj.	interjekzioa
Ipar.	Ipar Euskal Herriko hitz edo adiera
iz.	izena
izlag.	izenlaguna
izond.	izenondoa

izord.	izenordaina
junt.	juntagailua
L	lapurtera
lgart.	lagunarteko hizkerako hitz edo adiera
lok.	lokailua
maiusk.	lehen letra maiuskulaz
mend.	menderagailua
onom.	onomatopeia
ord.	ordinala
partik.	partikula
pl.	pluralean erabiltzen den hitz edo adiera
postp.	postposizioa
Z	zuberera
zah.	hitz edo adiera zaharra
zaio ad.	zaio aditza
zenbtz. orok.	zenbatzaile orokorra
zenbtz. zehazt.	zenbatzaile zehaztua
zenbtz. zehaztgb.	zenbatzaile zehaztugabea

Hiztegiaren erabilera



a

a. interj. ai.

ababor. iz. ▶ *istribor.*

abade. iz. 1. (B) **apaiz**; kleriko.

2. abat, priore. □ **abade-etxe.**

1. abadia, komentu, monasterio.

2. (B) apaizetxe.

abadegai. iz. apaizgai.

abadetu. *da/du ad.* (B) apaiztu, ordenatu.

abadetza. iz. (B) apaizgo.

abadia. iz. abade-etxe, monasterio.

abadot. iz. (g. er.; zah.) liztor.

abagune. iz. aukera, egokiera, parada; aizina, atiza (Ipar.).

abaila. iz. 1. abiada, abiadura. 2. bulta, oldar.

abaildu. *da/du ad.* akitu, nekatu, lehertu; unatu, hagoatu (Ipar.).

abaildura. iz. akidura, unadura (Ipar.); neke.

abakando. iz. misera.

abal. iz. berme.

abandonatu. *du ad.* 1. bertan behera utzi, alde bat(era) utzi, laga, utzi. ▶ *gorde, jaso.* 2. etsi, amore eman. ▶ *eutsi, iraun.*

abant. □ **abantean.** arraanean [*aurrerantz*].

abantada. iz. aurrerakada, abiada, bultzada.

abantaila. iz. 1. hobari, onura, probetxu. 2. alde, bentaja, diferentzia. 3. pribilegio. 4. errenta.

abantailatu. *du ad.* (Ipar.) (zah.) hobetu, ondu; aurreratu.

abantari. iz. arraunlari.

abantzamendu. iz. (Ipar.) aurre-rapen.

abantzatu. *da/du ad.* (Ipar.) (herr.) aurreratu, aitzinatu.

1 abantzu. *adb.* (Ipar.) bat, hurren, ia, inguru, kasik.

2 abantzu. iz. (Ipar.) aurrerapen, aurrerabide, aurrerakada; aitzinamendu (Ipar.).

abantzuño. *adb.* (Ipar.) ia-ia.

abao. iz. (B) abaraska, orraze.

abar. iz. 1. adar. 2. hondakin.

abaraska. iz. abao, beraska, orraze, mendrezka.

abartz. iz. txapar.

abaria. iz. (zah.) zekenkeria, zikoizkeria.

abarios. *izond.* (Ipar.) (zah.) zeken, zikoitz.

abarka. iz. zata.

abarkadun. *adj./iz.* baserritar; behartsu.

abarketa. iz. espartin; alpargata (Heg.); apreta (Heg.) (herr.).

abaro. iz. 1. babesleku, gordeleku. 2. aterpe, estalpe, itzalpe.

abarrakitu. *da/du ad.* suntsitu, desegin, txikitu; hautsi; deboilatu (Ipar.). ▶ *egin, eraiki.*

abartegi. iz. egurtegi.

abartu. *da ad.* adarkatu.

abasto. *zenbtz. zehaztgb.* (herr.) 1. aski, nahiko. 2. erruz, ugari.

abat. iz. (batez ere B) abade, priore.

abata. iz. apeu.

abdomen. iz. sabel, sabelalde.

abegi. iz. 1. harrera. 2. aurpegi, begitarte.

abegitsu. izond. **adeitsu**, txeratsu. > *gogaikarri*, *zakar*.

abelazkuntza. iz. abeltzaintza.

abelbide. iz. altxonbide.

abelburu. iz. buru.

abeldun. *adj./iz.* 1. abeltzain. 2. zaldizko.

abelera. iz. 1. (G) erabaki; ebazpen. 2. egoera.

abeletxe. iz. abeltegi, ganadutegi.

abelgorri. iz.azienda gorri, behi-azienda.

abeltegi. iz. 1. heia, korta, **ukuilu**; abeletxe. 2. eskorta.

abeltzain. iz. abeldun.

abeltzaintza. iz. abelazkuntza.

abemaria. iz. agurmaria.

abendu. iz. gabonil, lotazil.

abenitu. *da ad.* (zah.) **adostu**, akort jarri, elkar hartu, hitzartu, konpondu.

abentura. iz. mentura, odisea, periplo.

aberasgarri. izond. joritzaille.

aberaski. iz. (pl.) aberastasun, **ondasun**.

aberastasun. iz. (pl.) aberaski, dirutza, **ondasun**. > *behartasun*, *pobrezia*, *txirotasun*.

aberastu. *da/du ad.* dirutu, Amerikak/Ameriketak egin. > *pobretu*, *txirotu*.

aberats. *iz./izond.* 1. dirudun, eduki, handi-mandi, izandun, izantsu, okitu, sosdun; amerikano; indiano (herr.). > *behartsu*, *pobre*. ♦ *izond.* 2. jori, **oparo**, **ugari**. > *eskas*, *urri*.

abere. iz. 1. animalia,azienda. ♦ *iz./izond.* 2. **astakirten**. > *ongi hazi/ hezi*; *heziera/hezibide oneko*; *manera onak dituen(a)*. □ **etxe-abere**. > *basapiztia*.

aberekeria. iz. ankerkeria, basakeria, biganderia, krudelkeria, piztikeria.

1 abereki. *iz./izond.* (g. er.) abertiar, aberezko, astakilo, **astakirten**; asto.

2 abereki. iz. okela, haragi, haragiki.

aberekoi. *izond.* aberezko, abertiar.

abertiar. *adj.* aberezko, aberekoi.

abertu. *da/du ad.* astotu. > *formaldu*, *zentsatu*.

aberezko. *izlag.* aberekoi, abertiar, abereki.

aberia. iz. 1. matxura. 2. kalte.

aberkide. iz. herritar.

aberkoi. *izond.* abertzale.

aberri. iz. herri, nazio, sorterri; dierri (g. er.).

aberriratu. *da/du ad.* herriratu. > *erbesteratu*.

abertimendu. iz. (lpar.) (herr.) abisu, oharpen.

abertitu. *dio ad./du ad.* (lpar.) (herr.) abisatu, ohartarazi, jakinarazi, gaztigatu.

abertzale. *iz./izond.* nazionalista; herrizale; aberkoi.

abertzaletasun. iz. nazionalismo.

abesbatza. iz. abestalde, koral, koru, orfeo.

abeslari. *iz./izond.* kantari.

abespeluan. *adb.* (B) 1. destajuan, somara. 2. edonola, **itsumustuan**, harrapaka, nolanahi.

abestalde. iz. abesbatza, koral, koru, orfeo.

- abestaldi.** *iz.* kantaldi.
- abesti.** *iz.* 1. **kantu**, kanta, doinu; konposizio; eres; kantika (Ipar.); kantore (batez ere Z). 2. [txori^{ena}] **kantu**, txorrotxio.
- abestu.** *du ad.* kantatu, xaramelatu.
- abeze.** *iz.* hasi-masi (pl.); hastapen.
- abiaburu.** *iz.* abiagune, abiapuntu.
 > *helmuga*.
- abiada.** *iz.* 1. abiadura, abaila, lastertasun, martxa, ziztu. 2. [abi^{atzea}] irteera. 3. (hed.) martxa, urrats; pasaia (Ipar.).
- abiadura.** *iz.* 1. lastertasun. 2. abiada, abaila, oldar. 3. **hasiera**, hastapen.
- abiagune.** *iz.* abiaburu, abiapuntu.
 > *helmuga*.
- abiamen.** *iz.* (batez ere Ipar.) 1. **hasiera**. 2. (pl.) **prestaketa**; apailu (Ipar.).
- abian.** *adb.* berehala.
- abiapuntu.** *iz.* abiaburu, abiagune.
 > *helmuga*.
- abiarazi.** *du ad.* abiatu (Ipar.); martxan ipini, martxan jarri.
- abiatu.** *da/du ad.* 1. partitu; atera, irten. > *gelditu*. ♦ *da ad.* 2. hasi. ♦ *du ad.* 3. (Ipar.) martxan ipini.
- abiazio.** *iz.* 1. hegazkintza. 2. hegazkineria.
- abil.** *izond.* (herr.) 1. iaio, **trebe**. > *baldar*. 2. **bizkor**. > *baldar*.
- abildu.** *da/du ad.* trebatu.
- abilezia.** *iz.* gaitasun, **trebezia**; abilitade (herr.). > *ezgaitasun*.
- abilidade.** *iz.* (herr.) gaitasun, **trebezia**, abilezia. > *ezgaitasun*.
- abioi.** *iz.* (herr.) hegazkin; aireko (Ipar.).
- abisatu.** *dio ad.* (Heg.), *du ad.* (Ipar.) ohartarazi; atelekatu, gaztigatu.
- abisu.** *iz.* 1. kontseilu, oharpen. 2. gaztigu, jakinarazpen, ohartarazpen; abertimendu (Ipar.).
- abitu.** *iz.* 1. [erlijioso^{ena}] jantzi; soineko. 2. (Ipar.) eskapulario, kutun.
- abizari.** *iz.* habiondoko, habirakoi.
- abizen.** *iz.* deitura.
- ablazio.** *iz.* erauzketa.
- abokatu.** *iz.* legelari; jurista; legegizon [gizonezkoa].
- abolitu.** *du ad.* ezeztatu.
- abonamendu.** *iz.* 1. (batez ere Ipar.) harpidetza, harpide. 2. (Ipar.) ordainketa, ordaintze. > *zor*.
- abonatu.** *da/du ad.* 1. (B/G) **goretsi**, goraipatu, goratu; losintxatu, bala-katu. 2. (batez ere Ipar.) harpidetu, harpidetza egin. ♦ *du ad.* 3. (g. er.) **onartu**, aintzat/ontzat hartu.
- abondantzia.** *iz.* (zah.) ugaritasun.
- abonu.** *iz.* laudorio, goraipamen, gorespen. > *irain*, *laido*.
- aborritu.** *du ad.* (Ipar.) (zah.) higuindu, **gorrotatu**, hastiatu.
- abortatu.** *du ad.* hilaurtu.
- abortu.** *iz.* bertitz(a), hilaur, haurgaltze.
- abre.** *iz.* (B) ipar-haize.
- abrigu.** *iz.* (B) imintzio, keinu.
- abrikot.** *iz.* arbeletxeko, albertxiko.
- abruska.** *adb.* **ahuspez**; muturrez aurrera; zanpez (Ipar.).
- absolbitu.** *du ad.* asketsi; askatu; barkatu.
- absolutu.** *izond.* 1. biribil, erabateko, guztizko. > *erlatibo*. 2. nominatibo.
- absoluzio.** *iz.* askespen, barkamen.
- absortzio.** *iz.* xurgatze.
- abstentzio.** *iz.* esku/parte ez hartze, ez egite. > *partaidetza*, *kolaborazio*, *parte-hartze*.

abstinentzia. iz. bijilia, mehe, haragi-uzte.

abstraktu. izond. espekulatibo.
 ▶ konkretu, zehatz.

absurdo. iz. 1. zentzugabekeria.
 2. aldrebes, burugabe, zentzugabe.
 ▶ bidezko, egoki, zuzen.

aburna. iz. loina.

aburu. iz. iritzi, uste.

1 abusatu. du ad. behartu, bortxatu.

2 abusatu. da ad. (Ipar.) dibertitu, jolastu, jostatu, olgatu.

abusu. iz. gehiegikeria, larderia, neurrigabekeria. ▶ moderazio, neurri.

abuztu. iz. 1. [hilabetea] agorril.
 2. uzta.

abzesu. iz. zorne-zorro.

adabaki. iz. petatxu, ipinki, txaplata, txatal.

adabatu. du ad. petatxatu, saihestatu, konpondu.

adabegi. iz. sakats, adargune; adarrondo (Ipar.).

adaburu. iz. kukula.

adaje. iz. adakera; adar (pl.).

adaka. iz. ernamuin, kimu, puja.

adakera. iz. adaje; adar (pl.).

adaki. iz. mozkin.

adakitu. du ad. inausi, kimatu.

adar. iz. 1. sirena, turuta. 2. abar, besanga. 3. deribazio. 4. (pl.) adaje, adakera. □ **adarra jo.** isekatu, burlatu, harpa jo, iseka egin, trufatu. ▶ erresetatu.

adarbakar. iz./izond. adarbakoitz.

adarbakoitz. iz./izond. adarbakar.

adargune. iz. adabegi; adarrondo (Ipar.).

adarjotzaile. iz./izond. burlari, isekari. ▶ formal, serio (Heg.) (herr.).

adarka. adb. goian behean, uharka, ibaika; erruz.

adarkatu. da ad. abartu.

adarrondo. iz. (Ipar.) adabegi, adargune.

adastu. du ad. txirikordatu.

adats. iz. ilaje, menats, gartzeta; motots; kalpar.

adausi. iz. zaunka.

adaxka. iz. kimu.

adberbio. iz. aditzondo.

adarr. iz. (Z) deabru, txerren.

adegi. iz. (B) (g. er.; zah.) loki (batez ere pl.).

adei. iz. adeitasun, begiramen; giza lege. ▶ zakarkeria.

adegibe. izond. lotsagabe, erresetugabe; ahalkegabe (Ipar.).
 ▶ **adeitsu**, erresetutsu.

adeitasun. iz. adei, kortesia, begiramen, begirune, erresetu, jendetasun; gizabide, gizalege; **prestutasun.** ▶ zakarkeria. □ **adeitasunez.** adeitsuki.

adeitsu. izond. atsegin, adikor, sotil, xalo; begirunetsu, erresetutsu; abegitsu. ▶ erresetugabe; zakar, zaputz.

adeitsuki. adb. adeitasunez, giza lege.

adelatu. du ad. (batez ere Z) **prestatu**, antolatu; **apailatu** (Ipar.).

adelu. iz. 1. antolamendu, prestakuntza, **prestaketa.** 2. apaingarri.

adhesio. iz. atxikidura.

1 adi. adb. 1. erne; arretaz, arduraz. ♦ iz. 2. **ardura**, arreta. ▶ axolagabekeria. □ **adia galdu.** adigabetu, distraitu.

2 adi. iz. adimen, inteligentzia.

adia. iz. auhen, **intziri**; donabera (pl.); deitore, dolamen (Ipar.).

adiagile. iz. hiletari; erostari.

adiakatu. *da ad.* auhendatu, erostatu; deitoratu, tamaldu; damutu.

adibide. *iz.* etsenplu (batez ere lpar.). □ **adibidez.** alegia, berbarako, esaterako, hots, kasu, konparazione, esan nahi baita, esate baterako, hala nola, hau da, konparazio batera.

adiera. *iz.* esanahi, esangura.

adieraki. *iz.* (g. g. er.) ohar.

adierazezin. *izond.* esanezin.
 ▶ *adierazgarri, adierazkor.*

adierazgarri. *iz.* 1. adierazle, bereizgarri, **ezaugarri**, seinale. ♦ *izond.* 2. adierazkor, esanguratsu; hunkigarri.

adierazi. *du ad.* aditzera eman, jakinarazi, azaldu, esplikatu, **agertu**, -en berri eman; iragarri. ▶ *isildu; gorde, ezkutatu.*

adierazkor. *izond.* adierazgarri.

adierazle. *iz.* 1. exegeta; interprete. 2. adierazgarri.

adierazpen. *iz.* 1. azalpen, esplikazio, gatzigu, jakinarazpen, komunikazio, parte. 2. [jendurrekoa] aitorpen, deklarazio.

adierazpide. *iz.* 1. agerbide, seinale. 2. errepresentazio.

adierraz. *izond.* argi, ulergarri, ulerterraz. ▶ **ulergaitz.**

adiezin. *izond.* **ulergaitz**, ulertezin.
 ▶ *ulergarri.*

adigabetu. *da/du ad.* distraitu, adia galdu.

adigai. *iz.* kontzeptu; gogoeta, ideia.

adigaitz. *izond.* **ulergaitz**, ulertezin.
 ▶ *ulergarri.*

adigaiztasun. *iz.* ulergaiztasun, ulertezintasun. ▶ *ulergarritasun.*

adigalkor. *izond.* oharkabe.
 ▶ *adikor.*

adigarri. *iz.* 1. azalpen. ♦ *izond.* 2. adierraz, ulergarri. ▶ **ulergaitz.** 3. entzungarri.

adigarritasun. *iz.* ulergarritasun.

adigogor. *izond.* (g. er.) geldo, **motel.** ▶ *argi, erne.*

adiguri. *iz.* (Heg.) (g. er.) **opari**, bezuza; erregalu (Heg.) (herr.).

adikatu. *da ad.* 1. **nekatu, akitu**, ahitu; unatu (lpar.). ♦ *du ad.* 2. amorrarazi, ernegarazi, gogaitarazi.

adikor. *izond.* 1. **adeitsu, atsegin**, xalo. ▶ **zakar.** 2. oharkor. ▶ *oharkabe.* 3. ulerkor.

adikune. *iz.* (B) **begirada**, so.

adikuntza. *iz.* **adimen**, ezaguera.

adimen. *iz.* 1. adimendu, buru, arrazoi, ulermen; ezaguera, ezagumen; inteligentzia; adikuntza; talentu. 2. burubide, sen, zentzu. □ **adimen gutxiko.** adimen urriko, atzeratu. || **adimen urriko.** adimen gutxiko.

adimendu. *iz.* **adimen.**

adimendun. *adj.* adimentsu, argi, arrazional, arrazoidun. ▶ *adimengabe, arrazoigabe.*

adimengabe. *izond.* arrazoigabe, burugabe, **zentzugabe.** ▶ *adimendun, adimentsu, argi, arrazional, arrazoidun.*

adimentsu. *izond.* burutsu, adimendun, argi.

1 adin. *iz.* biziario, sasoi. □ **adin nagusiko.** adinez nagusi, adindun; nagusi. ▶ *adingabe.* || **adinez nagusi.** adin nagusiko. || **adinez txiki.** adingabe. ▶ *adindun.*

2 adin. *iz.* (B) (zah.) **adimen.**

adina. *partik.* beste, adinbat, bezainbat, bezainbeste, hainbeste, **hainbat**; lain.

adinako. *izlag.* hainbat, hainbateko.

adinbat. *partik.* adina, hainbat, beste.

1 adindu. *da ad.* adineratu, zahartu, nagusitu. ▶ *gaztetu.*

2 adindu. *iz./izond.* adineko, zahar, nagusi. ▶ *gazte.*

1 adindun. *adj./iz.* 1. adineko, adintsu, nagusi. ▶ *gazte; adingabe.*
2. adinez nagusi, adin nagusiko. ▶ *adingabe.*

2 adindun. *adj./iz.* (B) zentzudun, burudun, burutsu.

adineko. *izlag.* adintsu, adindun, heldu, larri, nagusi, umo; zahar. ▶ *gazte; adingabe.*

adineratu. *da ad.* zahartu, adindu.

adingabe. *iz./izond.* 1. gazte; haur, ume. ▶ *adindun, adineko, adintsu, nagusi.* 2. adingabeko, adinez txiki. ▶ *adindun.*

adingabeko. *iz./izlag.* adingabe, adinez txiki. ▶ *adindun.*

adinkide. *izond.* garaikide.

adinon. *izond.* (B) eskas, hala-holako; nahiko, aski. □ *adinonez.* garaiz, adiuntzaz.

adintsu. *izond.* adindun, adineko, urtetsu, zahar. ▶ *gazte.*

adio. *interj.* 1. agur. 2. agur, akabo. □ *adio egin.* adio esan, adioak egin, adioak esan, **agurtu,** agur egin/esan. || *adio esan.* adio egin. || *adioak egin.* adio egin. || *adioak esan.* adio egin.

adiskidantza. *iz.* (Ipar.) adiskidego, adiskidetasun, laguntasun; atxikimendu. ▶ *etsaigo; fobia.*

adiskide. *iz.* gogaide, irizkide; lagun. ▶ *arerio, etsai.*

adiskidego. *iz.* (batez ere Z) adiskidetasun.

adiskidetasun. *iz.* adiskidetz, laguntasun; adiskidantza (Ipar.); adiskidego. ▶ *etsaigo, fobia.*

adiskidetsu. *izond.* adeitsu, atsegin, malats. ▶ **zakar,** zaputuz.

adiskidetu. *da/du ad.* baketu, bakea(k) egin, bakezkoak egin. ▶ **haserretu.**

adiskidetz. *iz.* adiskidetasun.

aditasun. *iz.* ardura, arreta. ▶ *axolagabekeria.*

1 aditu. *du ad.* 1. konprenitu, ulertu. 2. entzun. 3. [*usaimena*] sumatu.

2 aditu. *iz./izond.* jakintsu, jakitun, ikasi, jantzi. ▶ *ezjakin.*

aditzaile. *iz.* entzule.

aditze. □ *aditzera eman.* adierazi, azaldu, iragarri, -en berri eman.

aditzera. *iz.* (G) albiste, berri; notizia (Heg.) (herr.).

aditzondo. *iz.* adberbio.

adiuntza. *iz.* garai, sasoi. □ *adiuntzaz.* garaiz, adinonez.

adiurre. *iz.* (zah.) aiarri, izaera.

adjektibo. *iz.* izenondo, izenlagun.

adjudikatu. *du ad.* esleitu.

adjudikazio. *iz.* esleipen.

administratu. *du ad.* eraendu, gobernatu, kudeatu; **agindu.**

admiragarri. *izond.* (zah.) miresgarri, miragarri.

adobatu. *du ad.* ondu.

adobo. *iz.* ontzu.

adoi. *iz.* eskuaire, trebetasun.

adoleszente. *iz./izond.* nerabe.

adoleszentzia. *iz.* nerabezaro.

adoptatu. *du ad.* semetzat/alabatzat hartu.

adoragarri. *izond.* gurgarri.

adoratu. *du ad.* gurtu, jauretsi.

adoratzaile. *iz.* gurtzaile, jauresle; miresle.

- adorazio.** iz. gurtza, jaurespen, kultu.
- adore.** iz. kemen, indar, ahalgo; ausardia, ausartasun; bipiltasun; kuraia, kalipu, arkuma (Ipar.).
 ▶ etsipen; **beldur**; **koldarkeria**.
 □ **adore eman.** adoretu, animatu, arnasa eman, kemendu. ▶ **etsi**; **uzkurtu**, **koldartu**, **kikildu**.
- adoregabetu.** da/du ad. gogogabetu.
- adoretsu.** izond. kementsu, indartsu, bulartsu, bihoztun; **ausart**; **bipil**; **bihoztoi**. ▶ **uzkur**, **koldar**, **kikil**.
- adoretu.** da/du ad. animatu, arnasa eman, kemendu, aitzinatu. ▶ **etsi**; **uzkurtu**, **koldartu**, **kikildu**.
- ados.** □ **ados egon.** ados etorri, ados izan, ados jarri, **adostu**, bat etorri. || **ados etorri.** ados egon. || **ados izan.** ados egon. || **ados jarri.** ados egon.
- adostasun.** iz. akordio, **hitzarmen**; irizkidetasun. ▶ **desadostasun**, **desakordio**.
- adostezin.** izond. bateraezin. ▶ **bateragarri**.
- adostu.** da ad. 1. [jokoan, lehiaketetan] berdindu, hainbanatu. ♦ da/du ad. 2. ados egon/izan/etorri/jarri; akort egon/izan; akort ezarri/jarri; bat etorri; elkar hartu; abenitu, akordatu (zah.); akomeatu (Ipar.).
- adrendu.** iz. (GN) abilezia, **trebezia**; adrezia (Ipar.). ▶ **ezgaitasun**.
- adret.** izond. iaio, **trebe**. ▶ **baldar**, **ezgai**.
- adrezatu.** dio ad./zaio ad. (Ipar.) (g. g. er.) zuzendu, bideratu.
- adrezia.** iz. (Ipar.) adrendu, iaio-tasun, **trebezia**. ▶ **baldarkeria**.
- adrezu.** iz. (g. er.; zah.) aparatu, instrumentu, makina, trepetu; **tresna**.
- adu.** iz. (batez ere B) **zori**; zorte.
- aduan.** iz. errenteria.
- adulterio.** iz. ohaidego, ohaidetza; sasiezkontza; ezkon-nahaste, izorkeria.
- 1 adur.** iz. (B) lerre, bits; hagon, elder, arrapo, leka (Ipar.); barauts.
- 2 adur.** iz. (G) **zori**; zorte; halabehar, patu.
- adurti.** izond. haguentsu.
- aeronauta.** iz. astronauta, kosmonauta.
- afaitatu.** da/du ad. (Ipar.) (zah.) **apaindu**; adelatu (Ipar.).
- afalaitzin.** iz. afalaurre.
- afalaurre.** iz. afalaitzin.
- afalondo.** iz. afaloste.
- afaloste.** iz. afalondo.
- afan.** iz. (Heg.) 1. **arrandia**, **harrokeria**. ▶ **apaltasun**. 2. **grina**, **zale-tasun**, antsia, joran, **lehia**. ▶ **geldotasun**.
- afari.** iz. afarite [ekintza].
- afarite.** iz. (Ipar.) [ekintza] afari.
- afektibo.** izond. **amultsu**, maitekor, txeratsu. ▶ **antipatiko**, **ezatsegin**.
- afektu.** iz. (Heg.) (zah.) txera; afekzio (Ipar.) (zah.).
- afekzio.** iz. (Ipar.) (zah.) 1. **grina**, **nahi**. 2. txera; maitasun.
- afera.** iz. (Ipar.) 1. arazo, egiteko, **gai**. 2. plan.
- aferratu.** izond. lanpetu.
- afiliatu.** da/du ad. bazkidetu.
- afixa.** iz. (Ipar.) kartel (Heg.); iragarki.
- afizio.** iz. (Heg.) (herr.) **zaletasun**, hobby.
- afizionatu.** iz. (Heg.) 1. zaletu. 2. amateur. ▶ **profesional**.

aflijitu. *du ad.* (batez ere Ipar.) (zah.) atsekabetu.

afo. *izond. harro.* ▶ trinko.

afoinu. *iz.* (Heg.) 1. hezetasun. 2. usain.

afonia. *iz.* erlastura.

afoniko. *izond. erlats.*

aforismo. *iz.* atsotitz, errefrau.

afuntu. *iz.* (batez ere Ipar.) irain, laido. ▶ gorespen, laudorio, gorazarre.

afta. *iz.* aholegar, ahoeri.

agente. *iz.* 1. [eragilea] autore, egile. 2. ordezkari, bitarteko. 3. polizia-kide, polizia; guardia.

agerbide. *iz.* 1. seinale. 2. adierazpide.

ageri. *izond.* (begien) bistako, begi-bistako, nabarmen, nabari; ageriko, jendaurreko. ▶ ezkutu, ezkutuko, estali, gorde. □ **ageri izan.** *da ad.* agertu, azaldu, desestali. ▶ desagertu, estali, ezkutatu. || agerian. jendaurrean, publikoki.

ageriko. *izlag.* (begien) bistako, begi-bistako, nabarmen, nabari; jakin; jendaurreko, publiko. ▶ ezkutuko, ezkutu, estali, gorde; ezezagun.

agerizko. *izlag. ageriko.*

agerkai. *iz.* agiri.

agerkari. *iz.* aldizkari, buletin.

agerkera. *iz.* agerpen.

agerketa. *iz.* agerpen.

agerkunde. *iz.* 1. agerpen, agerkera, agerraldi. 2. agerpen, errebelazio. 3. (maiusk.) epifania (maiusk.); trufania (Ipar.).

agerpen. *iz.* 1. agerkera, agerraldi, agerketa. 2. agerkunde; errebelazio.

agerraldi. *iz.* 1. agerpen. 2. bisita. 3. gertaldi. 4. manifestazio. □ (kale-)agerraldi. manifestazio.

agerri. *izond. (zah.) ageri.*

agertoki. *iz.* antzeztoki, antzezleku; jokaleku (Ipar.).

agertu. *da ad.* 1. [ezagutzera eman] ageri izan, azaldu, bistaratu, desestali, manifestatu; erakutsi, aurkeztu. ▶ desagertu, ezkutatu. ♦ *du ad.* 2. [ikusgai bihurtu] nabaritu, nabarmendu. ▶ ezkutatu. 3. [jakinarazi] adierazi.

agertze. *iz.* agerpen, agerraldi; aurkezpen.

agian. *adb.* 1. beharbada, apika, ausaz; ote; akaso (Heg.) (herr.). ▶ segurki, ziur. ♦ *interj.* 2. (Ipar.) oxala.

agianza. *iz.* (BN/L) desira.

agianzatu. *du ad.* (BN/L) desiratu, nahi izan.

agidanean. *adb.* agidanez, dirudienez.

agidanez. *adb.* agidanean, dirudienez.

agilando. *iz.* (Heg.) gabonsari.

agin. *adb.* (B) inguru. □ aginean. (aditzaren eraburutuaren ondoren) -t(z)eko zorian.

1 agindu. *du ad.* 1. dekretatu, erabaki, mezutu, ordenatu; manatu (Ipar.). ▶ obeditu. 2. administratu, kudeatu. 3. berbatu, promestu, prometatu, hitzeman. 4. baimendu, utzi.

2 agindu. *iz.* 1. kontsigna, manamendu, manu, ordena; xedapen; ezarpen, inposizio. 2. agintzari, hitz, promes, agintza.

agindupe. *iz.* (batez ere leku-denborazko kasu-atzizkiez) eskumende.

agindupeko. *iz.* mendeko, zerbitzari.

aginpide. *iz.* aginte, esku, botere, autoritate; burupe (Ipar.).

aginpidedun. *adj./iz.* eskudun.

agintari. *iz.* buruzagi, nagusi, agintadun, agintzaile.

agintaritza. *iz.* **aginte**, botere.

aginte. *iz.* aginpide, esku, botere, autoritate, manu; agintaritza; eskumen; ahalmen; burupe (Ipar.) (zah.).

agintedun. *adj.* 1. agintari. \diamond *iz.* 2. aingeru.

agintera. *iz.* inperatibo.

aginterri. *iz.* (g. er.) erreinu, erresuma, estatu.

agintza. *iz.* agintzari, promes.

agintzaile. *iz.* 1. agintari. \diamond *izond.* 2. jaunxkila, jauntxo [gizonezkoa]; mari-maistra [emakumezkoa] (Igart.); autoritario.

agintzari. *iz.* **agindu**, hitz, promes, agintza.

agiraka. *iz.* (batez ere B) **errieta**; **liskar**. \blacktriangleright *bake*. \square **agiraka egin**. (batez ere B) errieta egin.

agirakatu. *du ad.* agiraka egin, errieta egin.

agiri. *iz.* dokumentu, agerkai; izkribu.

agiritegi. *iz.* artxibo.

agirizain. *iz.* artxibozain.

agitu. *da ad.* gertatu, jazo.

agizko. *izlag.* arrunt, **ohiko**, normal. \blacktriangleright ezohi(z)ko.

aglutinazio. *iz.* eransketa.

agondu. *da ad.* altxatu, tentetu, zutitu. \blacktriangleright *erori*, *etzan*.

agonia. *iz.* hiltamu, hilzori.

agoñu. *iz.* (Z) **adore**, **kemen**, kuraia.

agor. *izond.* 1. idor, ihar, lehor. \blacktriangleright *busti*, *heze*. 2. **antzu**. \blacktriangleright *emankor*, *ugalkor*.

agorraldi. *iz.* agorte, idorte, lehorte. \blacktriangleright *eurite*.

agorril. *iz.* abuztu.

agorrola. *iz.* haizeola.

agortasun. *iz.* antzutasun.

agorte. *iz.* agorraldi, idorte, lehorte. \blacktriangleright *eurite*.

agortu. *da/du ad.* 1. idortu, lehortu, xukatu. \blacktriangleright *busti*, *hezetu*. 2. **amaitu**, **bukatu**, ahitu.

agradatu. *da ad./zaio ad.* (Ipar.) **atsegin izan**, gogoko izan; gustatu (batez ere herr.).

agresibitate. *iz.* oldarkortasun.

agresio. *iz.* **eraso**, oldar. \blacktriangleright *defentsa*.

aguantatu. *du ad.* (herr.) 1. iraun. 2. **jasan**, pairatu, eraman. \blacktriangleright *asaldatu*, *jarki*.

aguardient. *iz.* (Ipar.) pattar.

aguazil. *iz.* (herr.) amabi, amameru, herrizain, hirizain, merio, txinel, udaltzain; herriko mutil, herri-mutil (Ipar.).

agudezia. *iz.* (batez ere Ipar.) (zah.) agudotasun, trebetasun; abilidade (herr.). \blacktriangleright *baldarkeria*; *ezgaitasun*.

agudo. *izond.* 1. (Ipar.) abil, **trebe**, azkar, argi, prestu. \blacktriangleright *baldar*, *ezgai*. \diamond *adb.* 2. (Heg.) laster, **bizkor**, **arin**, azkar. \blacktriangleright *lasai*, *astiro*, *poliki*.

agudotasun. *iz.* lastertasun, bizkortasun, arintasun, azkartasun. \blacktriangleright *lasaitasun*; *moteltasun*.

agudotu. *da/du ad.* 1. (Ipar.) trebatu. 2. (Heg.) bizkortu, arindu, azkartu. \blacktriangleright *lasaitu*; *moteldu*.

agur. *iz.* 1. diosal, oles. 2. gur, erreberentzia. \diamond *interj.* 3. adio; kaixo (Heg.) (Igart.). 4. adio, akabo. \square **agur egin**. adio egin, **agurtu**. \parallel **agur esan**. adio esan, **agurtu**.

agure. *iz.* (sarritan gutxiesgarria) [gizonezkoa] senton; **zahar**; aitona. \blacktriangleright *gazte*.

aguretu. *da/du ad.* [gizonezkoa] **zahartu**. \blacktriangleright *gaztetu*.

agurgarri. izond. errespetagarri, itzalgarri, itzaltsu, ohoragarri; benegararri. ▶ gutxiesgarri, arbuiagarri, erdeinagarri, zapuzgarri, mespretxagarri.

agurkatu. *du ad.* (Ipar.) agurtu.

agurmaria. iz. abemaria.

agurtu. *du ad.* 1. agurkatu, agur/adio/ diosala/oles egin, diosaldu, eskumuinak/goraintziak eman; adio/agur esan; despeditu (herr.). 2. gurtu.

agurtza. iz. 1. gurtza. 2. (g. g. er.) arrosario.

ahaide. iz. familiarteko, tarteko; haurride; ahaiko; bernaje; **egoki** (Ipar.) (pl.); ahaideria (Ipar.); senide, senitarteko (B).

ahaidego. iz. 1. **ahaide** (pl.); senitarte; ahaideria (Ipar.). 2. ahaide-tasun.

ahaidekeria. iz. (g. er.) intzestu.

ahaideria. iz. (Ipar.) **ahaide** (pl.); ahaidego, senitarte.

ahaidetasun. iz. ahaidego, senide-tasun, senikera, haurridetasun.

ahaidetu. *da/du ad.* 1. ahaikatu (Ipar.) (g. er.; zah.). 2. anaitu, senidetu.

ahaikatu. *da/du ad.* (Ipar.) (g. er.; zah.) ahaidetu.

ahaiko. iz. 1. (g. er.) **ahaide**. 2. ahaidetasun.

ahaire. iz. (Z) doinu, melodia, kanta, kantu, abesti; aire (Ipar.).

ahakar. iz. **aharra**, **errieta**, kalapita, **liskar**. ▶ **bake**.

ahakartu. *da ad.* **haserretu**, **liskartu**, mokokatu, errieta egin; hizkatu, aharratu (Ipar.). ▶ **adiskidetu**, **baketu**.

ahal. iz. 1. ahalmen, botere, indar. ♦ *partik.* 2. ai, oxala; nahiago nuke... ba-

ahal izan. □ **ahal adina.** ahal beste, ahal bezainbat, ahalara. || **ahal beste.** ahal adina. || **ahal bezainbat.** ahal adina. || **ahalik (eta)... -en(a).** al bait (ondoren izenondua edo adberbioa + -en(a)).

ahala. □ *ad. + ahala.* ad. + arau.

ahalara. *adb.* (zah.) ahal adina, ahal beste, ahal bezainbat.

ahalbide. iz. 1. baliabide, bitarteko, posibilitate. 2. **aukera**, posibilitate.

ahalbidetu. *du ad.* bideratu. ▶ **galarazi**.

ahaldun. *adj./iz.* 1. ahaltsu, bote-rets. ▶ **ahul**. ♦ iz. 2. eskudun. 3. diputatu.

ahalegin. iz. (batez ere pl.) eginahal, senper, esfortzu, arkuma, efort, senperren; entsegu, saiaketa, saio.

ahalegindu. *da ad.* lehiatu, saiatu.

ahalera. iz. ahalezko.

ahalezko. *izlag.* ahalera.

ahalgo. iz. **kemen**, **adore**, indar.

ahalguztidun. *adj.* guztiahaldun, ahalorodun.

ahalke. iz. (batez ere Ipar.) 1. lotsari, lotsa; ahalkeria (Ipar.). ▶ **ausarkeria**. 2. onestasun. ▶ **lizunkeria**.

ahalkegabe. iz./izond. (Ipar.) **lotsagabe**; **aujame**, **mutiri**, **ozar** (Ipar.). ▶ **ahalketsu**, **lotsati**, **lotsakor**; **ahalketi** (Ipar.).

ahalkegabekeria. iz. (Ipar.) lotsagabekeria.

ahalkegabetasun. iz. (Ipar.) lotsagabetasun.

ahalkegabetu. *da/du ad.* (Ipar.) lotsagabetu. ▶ **ahalketu**, **lotsatu**.

ahalkegarri. izond. (Ipar.) lotsagarri. ▶ **ohoragarri**.

ahalkeizun. iz. (Ipar.) lotsaizun, laido.